


JAIZKIBELGO LARREETAN DIHARDUEN ARTZAIA

JOXE JOAKIN AZKUE INAULURRETAN AURKITU DUGU

Joxe Joakin Azkue Jaizkibelgo azken artzaietako bat dugu. 1925.ean Lete baserrian jaio zen. Gaur egun Iñaulurreta baserrian bizi da bere emazte eta seme-alabekin, eta bertan izan gara artzantzaren gorabeherak ahalik eta perspektiba objetiboenarekin ezagutzeko asmoz. Artzantzan noiztik dabilen galdetutakoan zera erantzun digu: "beti, txiki txikitatik, nere denbora guztian. Nere aita ere artzaia zen eta aurrekoak ere bai. Orain dela 150 urte ere."



Bere gazte garaian Jaizkibelen artzantza egiten al zen galdetutakoan 1956.ean egin zuen negu hotzaren aipamenik egin digu. "Bai, ardi asko zen, orduan etxe guztitan bazen ardia. 1956.ean negu gogorra egin zuen. Otsailan izan zen. Bertako pinu guztiak ihartu ziren eta ardi gutxi hil bazen ere behorra eta horrelakoa asko hil zen." Berak kontatu digunez garai haietan hamaika baserri zeuden inguru hauetan eta denak abeltzantzatik bizi ziren.

Jaizkibelgo artzantzaren gaurko egoera zertan den ere galdetu diogu Joxe Joakini. "Orain artzai gutxi dago. Hemen, zona militar hontan gu bakarra gara, eta gero, hor beheran, Pasai San Juango terrenutan beste bat: Joxe Mari Legorburu. Hemen bi eta Hondarribian beste hiru edo horrela egongo dira. Gero, Lezon bada beste bat: Gaztelu, Alarguntzan."

Ardien gaiari heldu diogu eta numerotan ere sartu gara.

"Ardiak hemen inguruan ibiltzen ditugu, gehienez ere hemendik bost kilometrotara. Neguan etxean ematen diegu jana. Eta gero Lezoko soro batzuetara jeixten gara. Ardi kontutan, 260 eta 270 inguruan ibiltzen ditugu." Aurten egiten ari den neguarekin gustora ikusi dugu Iñaulurretako Joxe Joakin. "Aurten negu ona dioa. Goiz umatu dira, 160 buru eta tokirik ez geneukan etxean, baina oso ondo atera ditugu kanpoan hazi direnak, ondo oraindaino."


Bere produktuen artean esnea eta gazta ditugu garrantzitsuenak. Lehendabiziko frutak hasi arte esnea askok eramaten dute eta ondo saltzen da. Marrubiak hasten direnean esnea utzi egiten du eta orduan gazta egiteko garaia iritsia da. Komertzializazio kontuaz ere aritu gara. "Guk parrokia lehendik dugu. San Juan, Lezo, Errenteria eta hauetan ezagun asko dugu eta bera etortzen da bertara bila."



Baina Joxe Joakinek ardiak zaintzeaz gainera badu beste lanik. 36 behi baditu Jaizkibelgo lurretan. Eta kostan algak jaso ohi ditu. "Bi edo hiru hilabetetako funtzioa izaten da. Urria eta azaroa inguruan. Gero Antonio Lasa etortzen da. Honek hemengo algak, Hondarribiakoak eta Igeldokoak jasotzen ditu."

Entzuna dugu Jaizkibelen gertatu izan dela artzaiek mendiari su ematea. "Gehienetan izaten da sua, hego haizeak hazten direnean. Guk urtero ateratzen dugu lizentzia eta militarren terrenua erretzen dugu. Giroa egiten duenean zona erretzen dugu. Zona militarrean gaude eta hau garbi daukagu. Baina hemen toki askotan pasatzen dira folloi gogorrak: Lezo aldean, Hondarribi aldean, hemen San Juanen, denean pasatzen dira eta uste ez den garaian. Gero badakizu, bateko ehiztaria dela, besteko ..., kulpaz egiten erraza da. Baina zeinek daki nola deskuidatu litekeen !"

Jaizkibelgo militarrek ere ekarri ditugu gure elkarrizketara. "Militarrei errenta bat pagatzen diegu, hemengo pastua." Anek-dota kurioso bat kondatu digu Joxe Joakinek. Orain dela 30 urte militarrek behiak, txekorrek eta idiak jarri omen zituzten. "Baina badakizu, behiekin kibra jo zuten eta gero ardiak jartzekotan ere ibili ziren, baina ez zuten jarri. Militarren fundamentua badakizu: egiten duenari kendu eta tira!"



Solasaldia bukatu aurretik artzaiaren bizitzako egun arrunt bat nolakoa den jakin nahi izan dugu. "Orain famili haundia gara eta seiak aldean jeikitzen gara. Baina goizago ere ibili izandu gara. Gauean berriz, hamar t'erdietarako ohean gara. Orain, apirila arte lan asko izaten da: umeak zaindu behar direla, umeak amari eman ... Baina gero, apirilatik aurrera beste hiru hilabetetan lan erraza da: ardiak egunean bitan jeitzi, gazta egin eta gero mendira bota."

Lander ZURUTUZA

(Marrazkiak: Iñigo Olaizola)